



# Soziolinguistika albistaria

10.zenbakia

2017ko otsailak 23 – martxoak 8

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

---

### Hainbat udalerritako hizkuntzen erabileraren 2016ko Kale Neurketen emaitzak aurkezten hasi gara

Euskal Herriko VII. Kale Neurketako datu-bilketa burutu genuen 2016ko udazkenean. Datu-bilketa zabal honen baitan, 30 udalerrri inguruk Soziolinguistika Klusterrari bertako kale erabilera datu adierazgarriak eskuratzeko eskaera luzatu zioten. Udaberri honetan zehar, eskuratutako emaitza horiek aurkezten ibiliko gara hainbat herritan. Martxoko agenda duzue ikusgai hemen.

## Ikerketak

---

### PuntuEUS Behatokiaren arabera 18.317 webgune daude euskaraz

Bigarren urtez jarraian Euskarak Interneten duten presentzia aztertu du PuntuEUS Behatokiak. Baita, Internetek Euskal Herrian duen presentzia ere, modu kuantitatibo zein kualitatiboan, horretarako hiru alor neurtuz: .EUS domeinuaren egoera, Internet Euskal Herrian eta Euskararen egoera Interneten.

## Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

---

### Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa Baionan UEUren antolatuta

Uztailaren 4an Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa: Zer berri? antolatuko du UEUko Hizkuntzalaritza sailak Baionan. Lehenengo topaketaren harira antolatu dute hirugarren hau. Hain zuzen ere, hizkuntza aztergai duten proiektuak edota tesi-lanak —abian direnak zein amaitu berriak— **jendaurrean plazaratzeko gune** bat izan nahi du jardunaldiak.

## Liburuak eta artikulu zientifikoak<sup>1</sup>

---

### Liburu Berriak: Euskararen herri hizkeren atlasa VII

Argitaratzailea: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque, 2008-2016, Bilbo.

### Liburu Berriak: Hizkuntza, nazioa eta estatua

XX. mendearen erditsuan, abertzaletasunak berritu sakon bat izan zuen, eta arrazaren orde euskarari eman zitzaion lehentasuna gure herria definitzeko eta eraikitzeko orduan. Gaur, XXI. mendean, planteamendu berriak entzuten dira, lehengo uste ziurrak zalantzan jartzera datozenak: hizkuntza, nazioarentzat mesede eta sostengu izan arren, ez ote da kalte edo traba estatu bat lortzeari begira?

- **Joxe Azurmendirekin solasaldia: "Hizkuntza, nazioa, estatua" [Bideoa]**

### Mercator:Newsletter 129 February 2017

Newsletter focusing on multilingual regions dealing with regional or minority languages, but also immigrant languages and smaller state languages, with emphasis on language needs arising from migration and globalization.

### Centre de Documentació-Direcció General de Política Lingüística: Azken bildumak

- **Butlletí de sumaris. Febrer 2017**
- **Noves adquisicions bibliogràfiques. Febrer 2017**

### Txepetxen teoriak 30 urte

Euskal soziolinguistika teorikoan behinik behin mugarri bat bada, orain dela 30 urte Txepetxek jarri zuen bere tesi doktoralarekin. Tesi horrek 30 urte egingo ditu aurten, 30 urte, eta ordutik iraganari geroa bilatzen jarraitzen dugu. Liburua online irakurri daiteke.

## Bestelakoak

---

### Zenbat hizkuntza daude munduan? Badakizu erantzuna? Ezezkoa bada, hemen duzu

7.099 languages are spoken today. That number is constantly in flux, because we're learning more about the world's languages every day. And beyond that, the languages themselves are in flux. They're living and dynamic, spoken by communities whose lives are shaped by our rapidly changing world.

### Euskara ulertzeko gai direnen mapa: hausnarketarako aukera

Pello Zubiriaren artikulua. "Niri begiek esaten didate, laburrean, Gipuzkoan ia denetan ulertzen dutela %80 baino gehiagok, ez da ez herri eta ez hiri bakar bat (Eibar, Irun, Donostia, Errenteria...) %60 baino gutxiagok ulertzen duenik.

---

<sup>1</sup> Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira](mailto:liburutegi@habe.eus) ([liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

## **Donostiako Protokoloa euskarara egokitu eta egikaritzea izango da 2017ko egiteko nagusia**

Urteko batzarra egin du Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Bilboko Euskalduna jauregian. Bertan, 2016ko balantzea eta 2017rako kudeaketa plana aho batez onartu dituzte erakundea osatzen duten bazkideen ordezkariak.

## **Nazioarteko proiektuetan gure hizkuntzei lekua egiteko "gida ez-perfektua" aurkeztu dute**

Pasa den asteartean, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean, TOSTA ekimenaren bi emaitza aurkeztu genituen Donostia 2016k eta Euskaltzaleen Topaguneak: batetik, nazioarteko kultur proiektuetan hizkuntza gutxituak lehenesteko "gida ez-perfektua" eta, bestetik, Tosta eki...

## **"Ingurune digitalean euskara lehen mailako hizkuntza izateko .eus domeinua tresna"**

"Ingurune digitalean euskara lehen mailako hizkuntza izateko .eus domeinua tresna". Hamar urte igaro dira .eus domeinua sortzeko asmoa martxan jarri ze... Hamar urte igaro dira .eus domeinua sortzeko asmoa martxan jarri ze... Hamar urte igaro dira .eus domeinua sortz...

## **«Sobre l'informe de CCC» nou apunt del blog "Amb certa calma-qüestions de llengua i societat"**

Dijous passat, Xavier Vila va escriure un nou apunt al seu blog titualt «Sobre l'informe de CCC», fent referència al treball «La evaluación PISA en Catalunya», publicat per l'organització Convivència Cívica Catalana.

